CARMEN CONDE

Egile hau 27ko eta 36ko belaunaldiekin lotuta dago, eta **hainbat genero garatu zituen, hala nola poesia, eleberria, antzerkia, saiakera eta haur-literatura**. Haren poesian intentsitate liriko handiko hizkuntza darabil, eta amodioa, natura, feminitatea, giza konpromisoa eta gogoeta existentziala uztartzen ditu.

Carmen Conde Cartagenan hasi zen idazten, Madrilgo bizitza kulturaletik urrun. Platero y yo irakurri ondoren, gutun bat idatzi zion **Juan Ramón Jiménezi, eta hark Ernestina Champourcinekin jarri zuen harremanetan**. Bien artean **adiskidetasun** handia sortu zen, eta **elkarri laguntza ematen zioten literatura-lanean**.

"Beharbada bihar joanen da nire liburua inprimategira. Zer dakizu zureaz? Izugarri gustatuko litzaidake biak aldi berean ateratzea. Ziur hainbat kritikari ezagutuko dituzula, zure liburuan interesa izan dezaketenak, ale batzuk haiei bidaltzeko. Nahi baduzu, nire lagun batzuen izen eta helbideak emanen dizkizut; ziurrenik atsegin handiz irakurriko dute Brocal".
(Ernestina Champourcinek Carmen Conderi, 1928-04-01)

IRAGATEA

Argiaren ondoren Argia zen.
Gero itsasoa zegoen, eta itsasoarekin
hiltzeko irrika bat, haren bizitza izanda.
Nire arimak, bakarrik, amets leuna arnasten zuen

haren ur geldizko adar isiletatik.
Beste izaki batzuek nire garaiera urritzen zuten
eta hegan igotzen ziren, garden.

Nire presentzia hartzen duten egun hauek
nire denboratik urrun zeuden jada...;
taupaden isiltasun bat aditzen zen.

Nire goiztiriaren goialdean txori batek kantatu zuen
eta nik errepikatu, ezin kontatuzko
argitasunez, ostertz eta neurririk gabe.

(*Ansia de la gracia*, 1945)

